Zikoinak bezala

Migrazio garaia zen. Bere Ford Focus txurian zihoan. Inguruan soroak eta ibaia besterik ez. Etxe sakabanatuen teilatuetan zikoinak ageri ziren. Duela gutxi itzuli ziren, negua igaro ondoren, urtero bezala.

Eguzkiak dir-dir egiten zuen, eta haizeak belarra mugitzen zuen. Hango herritarren bizimodu lasaia desiatu zuen, urtero euriaren, uztaren eta zikoinen zain.

Tamalez, autoan zeramana gogoratu zuen. Ibaia berriro ikustean, autoa gelditu zuen. Atzeko ispiluan begiratu, eta une batez gorputza korrontearen azpian desagertzen imajinatu zuen. Aurreko eguneko deiak dena aldatu zuen. Lehenengo, deia. Gero, bera. Zikoinak bezala. Alde egiten bazuten ere, beti aurkitzen zuten leku berera itzultzeko bidea.